

# altza

# porru!

2018ko otsaila · 68

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEAREN BOLETINA

EHTE Allemendi 1 · 20800 ZARAUZ · Tel.: 943 83 28 28 · trikitixa@trikitixa.eus



Euskal Herriko  
Trikitixa Elkartea

L.G.: SS-418-01

[www.trikitixa.eus](http://www.trikitixa.eus)

## SAN JOSETAKO TRIKITI JAIALDIA ATE JOKA

Azken urteetan bezala, Azpeitiko Soreasu Antzokian ospatuko da aurten ere San Joseetako trikiti jaialdia **martxoaren 17an, 17:30ean**. Honako parte hartzaile hauek igoko dira oholtza gainera:

- Eneko Arbeo eta Mireia Ibabe
- Obaneuke
- Ansorregi eta Larrañaga
- Joxe Mendizabal
- Astiasaran II eta Andonegi
- Epelde eta Lutxurdio
- Ttipika taldea

Sarrera aurrez eskuratu nahi duenak urtero bezala aukera izango du Azpeitiko Berdie, Pastorkua eta Mendizabal jatetxeetan eta Azkoitiko Isidro erretegian, edo Euskal Herriko Trikitixa Elkartera deituta 943 83 28 28 (goizez) eta trikitixa@trikitixa.eus helbidera idatzita. Sarrera hauek **martxoaren 10etik aurrera** egongo dira salgai 12 €-tan.

Bestalde, egunean bertan 16:00etatik aurrera leihatilari saltzeko sarrera batzuk ere gordeko dira. Erreserbak berriz, 16:30ak baino lehen jaso beharko dira. Ordu hori baino lehen jasotzen ez diren sarrerak salgai jarriko dira.

# 2017KO BALANTZEA ETA 2018RAKO EGITASMOAK ONARTU DITU URTEKO BATZAR NAGUSIAK

Otsailaren 24ean, Adunan egindako Batzar Nagusiak iazko balantzea egin eta 2018rako egitasmoak onartu ditu. Proiektu hauek burutuko dira aurren:

- ▶ **Dokumentazio zentroa** osatzen eta aberasten jarraituko du Elkarteak, trikitixarekin lotura duen guztia gordez.
- ▶ Hainbat trikitilarien emazteei **elkarrizketak** egiten eta grabatzen jarraituko du aurren ere Trikigiro eta KULTURAZ Azpeitiko Kultur Kooperatibarekin elkarlanean.
- ▶ Soinuaren Liburutegia bildumako 14. alea argitaratuko du. **Eleuterio eta Juanito Tapiaren** biografia liburu-diskoia **Joxean Agirrek** idatziko du.
- ▶ **Trikiti programen grabaketa:** Lander Garrok prestaturiko edukien gidoiari tiraka programak grabatzea da aurtengo asmoa.
- ▶ **“Trikitixa eta generoa”** gaiaren inguruan datu bilketarekin jarraituko da aurren ere Gipuzkoako beste bailara batzuk ikertuz.
- ▶ **Partitura liburua:** iaz bezala, aurren ere zenbakiz eta solfeo sortutako partiturekin liburua argitaratuko da. Ondoren [www.trikitixa.eus](http://www.trikitixa.eus) orrian zintzilikatuko dira.
- ▶ **Maketa lehiaketa, CD-a eta bideoklipa:** 1993. urtetik (hau barne) aurrera jaiotakoei zuzendutako lehiaketa da. Arauak [www.trikitixa.eus](http://www.trikitixa.eus) orrian zintzilikatuko dira. Lanak **maiatzaren 14a** baino lehen aurkeztu beharko dira.
- ▶ “Inperuko Poza” XVI. **Jardunaldiak**. “Musikaren eta instrumentuaren irakaskuntza” izan zuten ardatz iazko jardunaldiek. Aurtengo gaia zehazteke dagoen arren, Donostian izango dira iraileko lehenengo astean.
- ▶ **Trikiti Udalekuak:** 12-15 (biak barne) urte bitarteko gaztetxoei zuzendua dago eta ekainaren 25etik 28ra izango dira Asteasun. Urtero bezala ikastaroa eta elkarrizketaren bat eskainiko zaie egun horietan.

- ▶ **Gazteen topaketa:** 16-20 (biak barne) urte bitarteko gazteei zuzendua dago eta ekainaren 28tik 30era izango da Asteasun. Hemen ere ez da ikastaro eta elkarrizketarik faltako.
- ▶ **Helduen topaketa:** Apirilean egiteko asmoa dagoen arren data eta lekua zehazteko dago oraindik.
- ▶ **San Josetako trikiti jaialdia:** lehen orrialdean aipatu bezala, Martxoaren 17an egingo da Azpeitiko Soreasu Antzokian.
- ▶ **Durangoko Azoka:** aurren ere bertan izango da EHTE argitaratutako proiektuak jendeari eskura jarritz.
- ▶ Aipatutako egitasmoez gain, Elkarteak [www.trikitixa.eus](http://www.trikitixa.eus) webgunearan, **Altzaporruren** eta **sare sozialen** bidez emango du bere berri, eta jakina, trikitilari zein trikiti zaleei bere zerbitzua eskaintzeko prest izango da.

## ZUZENDARITZA

Zuzendaritza taldea honela geratuko da:

**Lehendakaria:**  
Agurtzane Elustondo

**Lehendakari ordea:**  
Iosu Arrizabalaga “Izer”

**Idazkariak:**  
Maider Jauregi eta Andoitz Antzizar

**Diruzaina:**  
Aritz Alustiza

**Bokalak:**  
Eneko Dorronsoro, Manex Torrealdai, Añarbe Kalonje, Ion Elustondo eta Itsaso Elizagoien.



## ARANTZAKO III. TRIKITIXA JAIALDIA

Martxoaren 10ean ospatuko da Arantzako III. Trikitixa Jaialdia herriko frontoian 16:30ean hasita eta Arantzako Udaleku Kultur Batzordeak antolatuta. Aurtengo parte hartzaileak hauek izango dira:

- Agorreta musika eskola
- Arantzako trikitilariak
- Azpeitiko Sahatsa dantza taldea
- Elizagoien ahizpak
- Etxalarko trikitilariak
- Irats trikitixa eskola
- Isidoro Fagoaga musika eskola
- Lesakako trikitixa eskola
- Lesakako udal musika eskola
- Mendaur trikitixa eskola

Sarrerak 5 € balioko ditu eta 12 urtez beherakoentzat doan izango da. Bestalde, bertaratutako publikoaren artean hainbat sari zozketatuko dira.

“Radio Revolucion” taldeak izen bera daraman 10 kantuz osatutako lehen diskoa kaleratu du otsaila hasieran. Jurgi Ibarretxe gitarra, charangoa eta ahotsean, Lander Otaola trikitixarekin, Wilson Varela perkusio menorrarekin, Nicolas Blanco perkusio maiorrarekin, Ani de Hernani ahotsean, Ruben Sanchez klarinetea eta saxofoiarekin, Matt L’Homme baxuan eta Borja Abal baterian, 2004a geroztik plazaz plaza dabilen taldea da. Diskoa internetez [www.radiorevolucion.net](http://www.radiorevolucion.net) web orrian dago salgai, baita Mauka Musikagintzaren dendetan, Balmasedako Herriko Tabernan, Laudioko Huts Tabernan eta Bilboko alde zaharreko Erronda kaleko Herriko Tabernan 10 €-tan. “Radio Revolucion” leku ezberdinetako musikariez osatutako taldea izan da bere soruntzatik. Honi lotuta, taldearen letrek errebindikazioaz eta natura eta kultura indigenen defentsaz hitz egiten dute.



## ITSASO EZAGUTUZ, HAMAIKA KONTUZ!

### ELKARRIZKETA: ITSASO ELIZAGOIEN

#### Nor da Itsaso Elizagoien?

22 urteko neska etxalartarra. Ingeniarria ikasketaz eta trikitilaria afizioz, oharkabean ofizio bihurtu bada ere.

#### Nolatan murgildu zinen trikiti munduan?

Aita betidanik izan da trikitizalea. Nire kasuan, ahizpa hasi zen lehenengo ikasten eta noski, ahizpa zaharrak egiten duena gazteak ere egin nahi!

#### Zer da zuretzat soinu txikia?

Egun txarretan irri bat ateratzen didan tresna.

#### Hainbat urtetan txapelketa munduan ibili zara. Nola oroitzen dituzu urte horiek? Zer eman dizute txapelketek?

Lan aunitz egin genituen urteak izan ziren, txapelketetako prestatzeak denbora aunitz eskatzen baitu. Hala ere, lagun asko eman dizkigute txapelketek.

#### Zer moduzko trikitixa irakaslea da Itsaso? Ikasleek zer eskatzen dute?

Hori ikasleek erran beharko lukete. Gehienbat irratietan entzuten diren kantuak eskatzen dituzte, baina badago kantu zaharragoak ikasi nahi duenik ere. Ni, ahal eta dakidan neurrian, saiatzen naiz eskatzen didatena erakusten, beti pentsatu izan dudalako instrumentu bat ezin dela gogoz kontra ikasi.

#### 2015. urte bukaeratik Carlos Nuñez gaita jole galiziarrekin zbiltza. Zer moduzko esperientzia izaten ari da?



#### Luzerako iraungo duen proiektua da?

Inoiz pentsatu ahal ezingo nukeen esperientzia izaten ari da. Beraien familiako alaba txikia banintz bezala hartu naute eta haiei esker toki eta pertsona interesgarri pila ezagutzen ari naiz. Inoiz ezin da jakin gauzek zenbat iraungo duten baina baditugu etorkizunerako proiektuak.

#### Otsaila erdian Irlandan egon zara trikitixa hartuta. Nolako bidaia izan da?

Bidaia hagitz interesgarria izan da. Beraien akordeoia eta gurea leku beretik datoz bakoitzak instrumentua bere erara “eboluzionatu” badu ere. Hala ere trikitixarekin reel-ak jo daitezkeela konprobatu dut, eta Irlandako akordeoiarekin kalejirak eta arin arinak.

#### Nafarra zara. Zer behar du Nafarroak?

Kultura maite duten euskaldun gehiago.

#### Kolore bat?

Beltza.

#### Gustuko duzun trikitilari bat?

Bat!? Alzaporruko orriak motz geldituko lirateke aipatuko nizkizun trikitilari guztiekin.

#### Amets bat?

Nire amets guztiak betetzea.

**XABI ETXANIZ**

Txapelketena izan baita trikitilarion arteko ezinegon gehienak sortu dituen gaia. Urte asko pasa dira infernuko hauspoa txapelketa, erromeri edo jaialditan astintzen hasi nintzenetik.(...) Urte pila bat oholtza baten gainean lau pieza jotzeko besterik balio ez duen trikitilari bat naizela sinetsiz.

Hala da. Trikitilari direnek edota behintzat inguru honetan mugitzen diren askok, ez dituzte txapelketak gustuko. Trikiti txapelketez ari naiz. Nahiago dute erromeri edota lagun arteko giroa, norgehiagoka alde batera utzi eta ongi pasatzeko musika-instrumentu bat bezala ulertzea. Guztiz ados, neu naizelako lehena bazkaloste batean, parranda giroan edota lagunartean trikitia atera eta ongi pasatzea gustuko duena.

Txapelketek, ordea, beti harrotu ohi dituzte hautsak. Trikitiaren munduan, nire sentsazioen arabera, kontrako gehiago aldekoak baino. Beldur eta ikusi-ezin gehiegi sumatzen dut. Trikitilariok badugu zer ikasia bertsolariengandik. Galtzeko beldurrik ez dute. Eta beti euskara eta euskal kulturaren alde. Haiek jakin dute entzuleria bereganatzen. Txapelketei balioa ematen, eta txapelketak ongi kudeatzen.

Maxixatzen. 2018-02-15

**AMETS ORMAETXEA**

Eragin handia eduki du Kepak erakutsi digunak gure musika arloan. Adibidez kalejira bat denak berdin jotzen genuen eta Kepak erakutsi digu bolumenarekin jolasten, matizatzen, eta leku bakoitzean panderoak zarata ezberdin bat daukala. Pandero berdinek ere soinu ezberdina daukatela nork jotzen duenaren arabera. Bakoitzak topatu behar du soinu hori momentu eta egoera bakoitzean nolakoa izan. Hasieran horri ez genion garrantzirik ematen, baina gero konturatu nintzen... ez, ez, nik ez dakit panderoa jotzen!

Ikustenda. 2017-12-22

**ENDERROCK 2018 SARIA**

Folk disko onenari emandako Enderrock 2018 saria irabazi du Kepa Junkerak "FOK" diskoarekin. Zorionak!

**JOSEBA IZTUETA: FANDANGO FILM LABURRA**

2017ko Bilbao Mendi Film Festival-eko Mendi Short lehiaketa irabazi duen film laburra da "FANDANGO". 2017.urtean Alpeetan eta Gabirian grabatua, Joseba Iztueta trikitilaria bertan agertzen delarik. Gattiken Produzizio Etxearekin grabatua izan da eta youtuben ikusgai dago: "FANDANGO film laburra".

**DEBAGOIENeko XIV. TRIKITIXA EGUNA**

Maiatzaren 5ean Antzuolan Debagoieneko XIV. Trikitixa eguna ospatuko da. Goizean 10:30ean elkartu eta hamaiketako izango da, 11:00etan hitzaldia Itsaso Elizagoien eta Josune Arakistainekin eta 12:00etan kalejira herriko txokoak alaituz. 13:00etan eskola desberdinek emanaldiak eskainiko dituzte eta jarraian 14:30ean bazkaria izango da. Egunari bukaera emateko, 18:00etan trikiti taldeen emanaldia izango da eta gau partean "Bide Batez" taldearekin erromeria.

**XABI ABURRUZAGA ESKOZIAN**

Otsailaren 3an "Keltik" lana aurkeztu zuen Xabi Aburrzagak Eskoziako Celtic Connections jaialdian. Gonbidatu bereziak izan zituen berarekin; Niamh Ní Charra Irlandatik, Sophie Stephenson Eskoziatik eta Nagore De Las Cuevas eta Arkaitz Pascuas dantzariak Euskal Herriko besteak beste.

**DENBORA PASA**

Non dago irudi bakoitza? Hauek ezagutzeko aitzakian bisita itzazu Euskal Herriko txoko eta erromeri ezberdinak! (Lotu irudi bakoitza dagokion herriarekin)



AIA

ZUMARRAGA

DONOSTIA

ARTEA

